

Siula Grande

Kondaira-dotoreziaz-jantzi-duen bidea

Siula Grande mendiaren mendebaldeko aurpegia, alpinismoan egundo izan den drama harrigarrietako baten lekuko izan zen 1985ean. Joe Simpsonnek drama horri buruz idatziriko kontakizunak kondairaren mailara jaso zuen mendia gero. Uda honetan, Aritza Monasterio euskaldunak eta Matic Jost, Viktor Mlinar eta Tomaz Zerovnik esloveniarrek hirugarren bidea zabaltu dute aurpegi mitiko horretan, erabat alpinoan, adoretz eta dotoreziaz.

«1985eko maiatzak 19. Beheko Kanpamentua. Moldatu ezinean nabil. Mundutik aparteko leku mehatxagarria dirudi, eta aldi berean, ernegarria, Alpeak baino askozaz ederragoa: eskalatzaile oldetik gabe, helikoptero eta erreskaterik gabe. Gu eta mendiak baino ez... Bizitzak hemen sinpleago eta benetakoago dirudi...».

Joe Simpson



Joe Simpsonen herioa

Testuak: Ramon Olsagasti
Argazkiak: Aritza Monasterio

Peruko Andeetako Huayhuash mendikate basatian, Sarapococha haran are basatiagoan gora, burua keizuan zerabilen Aritza Monasterio. Yerupajako hego aurpegia, Sarapo Haitza, Trapecio Juaru eta Carnicero mendien mendebala... haien bekozkoa, haien esnegainezko elur soinekoa eta izotz distira edonoren gogoan aieru gaiztoak sortzeko modukoa zen. Eta guztien artean larderiatsuen, Siula Grandeko mendebala. Bi bide baino ez ditu aurpegi horrek, (zehatzak izanda, bat eta erdi), eta haren kondaira, literatura eta itzal beldurgarria aski ezaguna da zailtasuneko alpinismoa zainetarako sarturik dutenen artean. «Hainbeste irakurri, hainbeste istorio entzun eta hainbeste argazki ikusi ondoren, aurrez aurre ikusi nuenean, gustua eman zidan, ederra iruditu zitzaidan. Gero, behin horman sartuta, ez nuen pentsatu Siula Grande eskalatzen ari nintzenik. Pentsatzen jarritz gero, aurpegi horrek atzera egiteko moduko ikara sor dezake», onartu du alpinista euskaldunak.

Uztailaren 3an, Huarazen ekin zioten espedizioari; 6an iritsi ziren kanpamentu nagusira. Eguraldiak ez zien ongietorri berorik egin atezuan zetozen bost mendizaleei, eta euriak atertu arte materiala eta euren babeslekua antolatzen aritu ziren, erraldoi mehatxagarrien gerizpean. Jakin bazekiten, bide batez, behean euria zena, mendiak noizbait gainetik astinduko zuen elurra zela goi haietan. Morrena «itsusi bat» (arris-kutsua esateko beste modu bat dute beti alpinistek) gaintu ondotik, glaziarren hasieran, 4.900 metro inguruan utzi zuten material bilte-

✱ Mendia eszenatoki aparta izan da betidanik istoriorik harrigarrienak agertzeko: komediak, adiskidetasun eta maitasun istorioak, heroismo eta biziraupen istorio epikoak, drama latzak... Fikzioak bari, errealtate gordinaren indarrak mendiko literaturaren klasikoetara eraman ditu gertaera horietako asko: Irvine eta Mallory; Amundsen eta Scott; Bonington eta Scott; Ogro mendian; Messner anaien drama, Nanga Parbat; 1996ko Everesteko tragedia... Eta mendiko istorio horien artean leku berezian gordeta dago Joe Simpson alpinista britaniarrak *Touching the void* (Hutsa ukitzen) liburuan gordin, zintzo egiten duen kontakizuna.

Joe Simpsonnek berak eta Simon Yatesek 1985ean gaintu zuten aurreneko Siula Grandeko mendebaldeko aurpegia. Gailurrera bidean gorriak eta bi ikusi zituzten, baina huskeria jaitsieran zetorkienarekin alderatuta. Beherako bidea ipar ertzetik egitea erabaki zuten. Han hasi zen drama: jaitsierako bigarren egunean Simpsonnek erorikoa izan zuen, eta belauna txiki-txiki eginda geratu zitzaion. Hori, Siula Granden, eta soka lagun bakarrekin, heriotza epaia zen.

Yates saiatu zen laguna sokatik zintzilik jaisten, bederatzi rapel ere egin zituzten modu trakets horretara, baina hargarrenean hutsean zintzilik geratu zen Simpson, eta Yatesek soka moztu behar izan zuen, biak amildu eta hilko ez baziren. Yatesek lortu zuen nola-hala kanpamentu nagusira iristea, eta han Simpsonen heriotzaren berri eman zuen. Pertsonak bizitzari atxikitze duen sena, ordea, mugagabea bide da: Simpsonnek, heriotzaren hutsa gertu zuela, arrastaka, Siula Granden azpialdera iristea lortu baitzuen. Liburuan, hotzikaraz irakurtzen diren kapitulu zirraragarrietan esplikatzen du bere heriotza.

gia. Eta uztailaren 10ean kanpamentu aurreratua ezarri zuten mendebaldeko aurpegiaren azpian. Ondorengo bi egunetan atsedean hartu zuten, eraso doitzen. Uztailaren 14an bete-betean ekin zioten Siula Grandeko mendebalaren barrunbeak arakatzeari.

Aurpegiaren arrakala, korridore, izotz jauzi, ertz eta zirrikitu guztiak arretaz aztertu ondoren, aukeratu zuten azkenik bide bat igotzeko, eta badaezpada, baita ihesbidea ere gero jaisteko. Sarreratik bertatik otsoaren leizean sartzeraz zihoazela ulertarazi zien Siulak: «Errimaia puskatua zegoen eta harkaitza bertan behera eroria. Lehen luzea sokaz finkatu behar izan zuten Tomasz eta Victorrek, eta spit bat ezarri goian. Gero, jaitsi egin ziren atzera, eta uztailaren 15ean hasi zen benetako eskalada», esan digu Aritza Monasteriok.

Uztailaren 15a egun gogorra izan zen: goizeko bostetan hasi ziren sugandila izuak paretan gora, bezperan finkatutako soketatik, eta ilunabarreko 18:00ak arte lepoa gora bihurrituta aritu ziren, Siularen soin ederrean gerri pareraino-edo iristeko. «Lehen luzea igo ondoren, 65º graduko elur aldapak ensanblean igo genituen eta, segidan, hiru-lau luze izotz jauzi bertikal eta oso-oso gogorrean. Gaua gainera zetorren, eta elur perretxiko baten azpiko zuloetan egin genuen lehen bibaka (5.800 m). Eserita, deseroso samarra izan zen bibaka, baina zakuan sartu ahal izan genuen», dio Aritzak.

Bi sokalditan banaturik egin zuten eskalada: Aritza eta Maticek osatu zuten sokaldi bat, eta Tomasz eta Victorrek bestea. Aurretik zihoazek, batek bidea ireki eta bigarrenak sokak ezartzen zituen; atzeko biak soka horietan segurtatuta igotzen ziren. «Modu horretara, askozaz azkarrago joan ginen; ez genuen azpitik zamarik garraiatu behar, bakoitzak bere 18 kiloko zorroa zeraman, eta izotzean lehenbiziko joan zenak ere, motxila bizkarrean zuela eskalatu zuten».

Meteorito ugari gainaldetik

Uztailaren 16an gutxi eskalatu zuten, goizeko 08:00etatik 12:00etara,



- 1 Simpson - Yates-en bidea
- 2 Bulher - Price-n aldaera
- 3 'Noches de Juerga' bide berria. Matic Jost, Viktor Mlinar

Siula Grandeko mendebaldeko aurpegia, eta orain arte igotako bidea.



Mendikate Zurian erabat

✱ Aritza Monasterio Elorrioren jaio zen, duela 36 urte, baina Elgoibarren bizi izan da gertatandik. 1991n, justu orain 10 urte, egin zuen lehen bidaia Perura, Mendikate Zuriko gailur zorrotzak ezagutzera. Baina gailurretako edertasuna ez ezik, Gisela Saly-Rosas ere ezagutu zuen Huarazen, egun bere emaztea. Pare bat urte egin zituzten Elgoibarren bizitzen, baina Giselaren barrenak Perura nahi zuen, eta Aritzaren kasuan herri-mina baino kasik